

UDAL ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

4. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Tarifen aplikazioa

2. artikulua.- - Aplikatu beharreko tarifa zehazteko, hurrengo artikuluetan definitutako kontzeptuak eta tarifen eranskinean ezarritakoa hartuko dira kontuan, eta, hala badagokio, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota barne hartuko dute.

3. artikulua.- Eranskinaren tarifak aplikatzeko, erabiltzaileek urtero aurkeztu beharreko dokumentazio ekonomikoa egiaztatuko da.

4. artikulua.- Eranskinaren 1. eta 2. epigrafeetan aipatu hileko *per capita* errenta zehazteko, honako kontzeptu hauek joko dira oinarri:

a) Errenta: PFEZaren gaineko aitortpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitortpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren alde orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalek ematen badituzte.

Erabiltzaileek PFEZaren gaineko aitortpena egin behar ez izatera, datu fiskaletan jasotako diru-sarrera gordin eguneratuenak hartuko dira kontuan.

b) *Per capita* errenta garbia: kalkulatzeko, aurreko puntuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia aterako da, eta horren emaitza familia-unitateko kide kopuruaz zatituko da.

Hileko *per capita* errenta garbia lortzeko, urteko *per capita* errenta hamabiz zatituko da. Bikote ezkonduen kasuan, biak izanez gero arau honetan arautzen diren udal-zerbitzuen erabiltzaileak, tarifa aplikatuko da bi ezkontideen *per capita* diru-sarrerak batu ondoko kopurua oinarritzat hartuta.

c) Gastu kengarriak: errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak (muga: 4.800 euro urteko), jarraian adierazitako kontzeptuengatik:

- Egonaldi-gastuak eguneko zentroetan.

- Egonaldi-gastuak egoitza geriatrikoetan, bikote ezkonduen kasuan, bietako bat apartamentuan bizi bada.

5. artikulua.- Tarifa subsidiarioa etxebizitza komunitarioak erabiltzen dituztenei aplikatuko zaie, tarifen 1. epigrafean azaltzen denarekin bat, baldin eta hileko diru-sarrerek, hamabi hilabetetan hainbanaturik, tarifa nagusiaren % 120 gainditzen ez badute.

Tarifa-eranskinaren 1. epigrafea aplikatzeko, urteko diru-sarrerei hileko 100,00 euroko kopuru finkoa deskontatuko zaie, eta hori etxebizitza komunitarioen erabiltzaileek nahi duten erara erabiltzeko erreserbatzat joko da.

Tarifa subsidiarioa aplikagarri bada –1. epigrafean jasotako moduan–, tarifa horren eta tarifa orokorraren arteko aldea Udalaren aurrerakintzat hartuko da, eta onuradunak edo kausadunak diru-kopuru hori itzuli beharko du baldintza ekonomikoak aldatzen badira edo ondasunen gaineko likidaziorik edo transmisiorik izanez gero, baita *mortis causa* izanda ere.

Horretarako, urtero, aurrerakintzat jasotako diruaren gaineko zorraren aitortpena sinatu beharko da.

Diru-bilketarako eta kudeaketarako arauak

6. artikulua.- Adinekoendako apartamentuen eta etxebizitza komunitarioen kasuan, prezio publikoa hilabete natural osoen arabera ordainduko da, erabiltzaileek baja ematen ez duten bitartean.

Hilabetearen hasieran edo bukaeran, tarifaren hainbanaketa egingen da zerbitzua jasotako egun naturalen arabera.

7. artikulua.- Udalak, diru-sarreren arabera tarifa murriztuaren onuradun izan nahi duten erabiltzaileei likidazioa egiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergei buruzko azkeneko aitortpena eskatzen ahal die, eta halakorik egin behar ez badute, justifikazioa eskatuko zaie lortutako diru-sarreren eta ondare- zein diru-ondasunen eta -eskubideen gainean, bai eta gastu kengarrien ziurtagiria ere.

8. artikulua.- Zerbitzu horiek emateagatik lortutako diru-sarrerak zerbitzuak zein Departamentuk kudeatu eta horrek berak kudeatuko ditu, eta, hileko likidazioen kasuan, zerbitzua noiz eman eta ondoko hilabeteke lehenbiziko bost egunetan egin beharko dira likidazio horiek.

9. artikulua.- Erabiltzaileek Udalez beste entitate baten zerbitzuak erabiltzeko dirulaguntzarik jasoz gero, prezio publikoa ordaintzeko sistema bereziak ezarriko dira aipatutako pertsonak dirua aurreratu beharrik izan ez dezaten.

TARIFA-ERANSKINA

1. EPIGRAFEA.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK

- Tarifa orokorra, tokiko eta hilabeteko	764,20 euro
- Tarifa subsidiarioa, tokiko eta hilabeteko	Hileko diru-sarreraren % 80, betiere 5. artikuluan xedatutakoarekin bat zenbatuta.

2. EPIGRAFEA.- ADINEKOENDAKO APARTAMENTUAK

ERABILTZAILAEN <i>PER CAPITA</i> ERRENTA	KUOTA (TARIFA PROGRESIBOA: %, <i>PER CAPITA</i> ERRENTAREN GAINEAN)
- 435,00 euro bitarte	% 10
- 435,01etik 481,00era	% 15
- 481,01etik 600,00era	% 20
- 600,01etik 750,00era	% 60
- 750,01etik 900,00era	% 65
- 900,01etik 1.010,00era	% 70
- 1.010,00 baino gehiago	Gehieneko tarifa
Gehieneko tarifak	€ hilean
- Banako apartamentua	345,00 euro
- Banako apartamentua, bi pertsonak erabilia	385,00 euro
- Apartamentu bikoitza	450,00 euro

Aplikazio-adibidea: 700 euroko per capita errenta duen pertsona batek honela ordainduko du tasa: lehenbiziko 435 euroen % 10 + 481-435,01 euroen % 15 + 600-481,01 euroen % 20 + 700-600,01 euroen % 60 = 134,19.

Bikote ezkonduak badira, edo bikote egonkorreko kideak, prezio publiko hauek aplikatuko zaizkie:

- Banako apartamentuetan, *per capita* errentari baremo orokorra lotuko zaio, eta emaitzari % 30 gehituko.
- Apartamentu bikoitzetan, *per capita* errentari baremo orokorra lotuko zaio, eta emaitzari % 50 gehituko.

Egoera bereziak direla medio pertsona bakar batek apartamentu bikoitza okupatzen badu, emaitzari % 25 gehituko zaio, behin erabiltzailearen diru-sarrerak eta ordaindu behar duen prezioa lotzen dituen baremo orokorra ezarrita.